

mitxitxu ta mitxita



C. BUSQUETS



MARGO-EDERDUN
IPUIAK

Ibilli ta ibilli itxas ertzerano iritxi ziran.
Itxas-ontzi eder bat ikusi zuten
eta berari begira zeudela
arrantzale zahar batek onela itzegin zien:
—Itxas-ontzi orretan sartzen bazerate
ugarte zoragarri baterano eramango zaituzte.




Gure bi anaitxoak bertan sartu ziran
eta une berean itxas-ontzia
itxaso barrura abiratu zan.

Lurra izkutatu zanean, Mitxita erabat bildurtu zan:
«Ai! Zer ikara!»
Mitxitxuk ere bildurrik pranko ba zeukan,
baña bere arreatxoaren
aurrian disimulatzen jakin zuan.



Nerea Kaperza-
605445402



Bein batean Mitxitxu ta Mitxita
izeneko anai-arreba bi ziran.

Egun batean etxetik aldegitara pentsatu zuten,
bizi eta lur berri batzuen bila joateko.
Mitxitak jostalluen erria arkitu nai zuen
eta Mitxitxu, dragoi eta gizon aundiek borrokatu.



Ala ere, arrantzaleak aipatutako
ugartera iritxi ziran noizpait.

Itxas-ontzia geldi-geldi egon zan
bi umetxoak atera artean.



Bertan asten zan bide batetik
jostalluen errira iritxi ziran.

Onetan jostallu sail bat
urreratu zan Mitxitarengana:
«Etorri zaitetz gurekin
eta gure etxean biziko zera».



Gudari bat ere etorri zan
eta Mitxitxu agurtu ondorean
onela itzegin zion:

«Kartoiezko zaldi orretara igo zaitez
eta jarraitu eidazu.
Erregea zure zai dago».



Gudariak jostailluzko gaztelu aundi batera
eraman zuan gure Mitxitxu.
Orduan, bertako gudariak beren turutak jo zituzten
Bein gaztelu barruan, eserleku eder batean zegoen
erregearengana eraman zuten.



«Jakin det eztezula beldurrik oraiñartekoan
ezagutu» esan zion erregek.

«Orregatik. Basurde
ikaragarriaren aitz-zulora
joan bear dezu
eta aren betortza
neri ekarri, txilibitu
bat egin dezadan».

«Zuk esan bezela izango da»
esan zion Mitxitxuk.





Ezpataz armatuta, suerte ona opatuaz,
kirkil aundi baten gañean bidali zuten,
baña aitz-zuloko basurdeak
etzeukan jolaserako gogorik,
eta gutxiago bere betortza erregeari emateko.



Basurdeak eraso zion
gure Mitxitxuri eta onek,
erabat bildurturik,
bere ezpata lurrera bota ondorean,
zuaitz batera igo zan.

«Au da au! Basurdetxo
ori dala-ta bildurtu!»
zion kirkilak barrezka.

Bitartean Mitxita oso pozik zebillan
ango jostalluekin.

Izan ere bere bizitzan
ikusi zituan ederrenak bai ziran.

Baña denbora pasa zan eta gosetu egin zan:

«Noiz jan bear degu?» galdetu zuan.
Jostalluak arrituta, berriz:
«Jan? Guk eztegu jaten».



Jakien denda batera eramán zuten
bañan kartoiezko jakiak ziran.
Au ikustean Mitxtak negarrari ekin zion:
«nere amarengana joan nai det».

Jostalluak mindu egin ziran:
«Neskatil guztiak
aspertzen dira gurekin».



Denen artean nolabait alaitu zuten gure Mitxita
eta kaia txikira eraman zuten,
etxeruntz abiratu zedin.
Mitxitxu ere an aurkitzen zan
bere kirkil alaiarekin.

Anai arreba besarkatu ondorean
an zeuden gustiak agurtu zituzten.



Itxas-ontziak itxasoan igaro zuanean
lehenagoko tokian utzi zituan
anaitxo biak.



Mitxitxu eta Mitxita etxeruntz
laisterka joan ziran.
Ate ondoan ama zegoen
baña oso goibel egon ere,
ez baitzuen pentsatzen
geiago ikuziko zitunik.



Oso pozik besarkatu zuten
eta andik aurrera txintxoak izateko
itza eman zien.

Ama ona nola zan barkatu zien
eta andik aurrera beti txintxo
jokatu zuten.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.291 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Asto-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria